

Euskal presoak

Presoak Euskal Herriratzeko eskatuz, EHko 25 alkatek gose greba hasi dute Altsasun

Euskal Herriko erakundeei presoan alde urrats berriak egiteko eskatu diete

Irene Arrizurieta / Altsasu

Presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuz, EHko 25 alkatek gose greba hasi zuten atzo Altsasuko Udalean. Baraualdiak heldu den larunbata

arte iraunen du, eta «euskal presoek Euskal Herriaren normalizazioan parte-hartzeko duten eskubidea» aldarrikatu nahi dute hautetsiok. Era berean, hemengo erakundeei presoan aldeko borrokan urrats

berriak egiteko deia egin diete, uste dutelako «prozesuak presoan beharra» duela. Bestalde, Espainiako eta Frantziako gobernuen jarrera kritikatu dute, Irlandan ez bezala, ez dutelako talde hori aintzat hartu.

EH TALDEKO Euskal Herriko 25 alkatek gose greba hasi zuten atzo arratsaldean Altsasuko Udaletxean. *Euskal presoak Euskal Herrira. Euskal Herriaren hitza errespetatu* lelopean, heldu den larunbata arte iraunen duen baraualdian ondoko auzapezak daude: Iñaki Urkizar (Ibarra), Tomas Azpiroz (Leizta), Nekane Malkorra (Orexa), Jaione Murelaga (Lekeitio), Luis Mari Telleria (Segura), Iñaki Idiakez (Ezki-Itsaso), Imanol Olano (Belauntza), Xabier Zubizarreta (Arrasate), Joxe Kruz Goñi (Leaburu), Maixabel Arrieta (Villabona), Nekane Eizagirre (Tolosa), Xabier Irargorri (Oiartzun), Joxan Barandiaran (Andoain), Joakin Zubeldia (Zaldibi), Gemma Mendieta (Aulesti), Josu Goia (Bera), Loren Arkotxa (Ondarroa), Mireia Unamuno (Antzuola), Camino Mendiluze (Altsasu), Joxe Manuel Erasun (Zizurkil) eta Juan Carlos Alduntzin (Pasaia).

Xabier Zubizarretak hitz egin zuen guztien izenean. Arrasateko alkateak gogoratu zuen Euskal Herrian azken bi urteotan «kolore guztietako jendea biltzen ari dela preso-



Xabier Zubizarreta Arrasateko alkateak eta Camino Mendiluze Altsasukoak hitz egin zuten prentsaurrekoan.

en aldeko aldarrikapenean», eta eurena horiei lotzen zaien beste ekintza bat dela.

Erakundeei deia

Zubizarretak Euskal Herriko erakundeei dei berezia egin zien «urrats berriak egin ditzaten» presoan aldeko

borrokan parte hartzeko. «Ordua da arazoa gainditzeko, Euskal Herrian normalizazioa lortzeko, eta presoan eskubideak betetzeko».

Ido honetan, EHk «presoan beharra» azpimarratu zuen. «Eukal herritarrok presoan beharra dugu, haien ekarpenik gabe zaila izango zaigula-

ko bakea lortzea», gaineratu zuen. Halaber, Espainiako zein Frantziako gobernuen jarrera kritikatu zuen. Irlandan ez bezala, hemen presoak ez direlako kontuan hartzen ari. «Adibidea Irlandakoa da, eta Espainia eta Frantzia erraturik daude beren jarrekin» gaitzetsi zuen.

Patxi Xabier Aretxaga • GOSE GREBAN VALDEMOROKO KARTZELAN •

«Gose greban dagoenari begirune handia zaio»

EPAIKETAREN zain urte bi eta lau hilabete daramatzen Bilboko preso eta zinegotzi ohiak 5 kilo galdu ditu abenduaren 30etik hona.

■ Zelan daroazu baraualdia?

Oraingoaz ondo nago, baina denbora gutxi daramat. Lehenengo bost egunak gogorragoak dira, gorputza borrotatzen duzulako. Ez diozu janaririk ematen eta eskatu egiten du.

■ Zelangoak dira bizi-baldintzak Valdemoron?

Tratua hemen ez da de-

nentzat bera. Modulo bakoitzak erresuma bat da, eta egoera guztiz ezberdinak gertatzen dira. Hala ere, ez da Espainiako kartzelarik gogorrena, agian hona ekartzen dituztelako probintzietan sakabanaturik dituzten presoak epaiketa Madrilen egiteko, eta ez dute holako leku batean istilu handirik nahi. Horrek ez du esan nahi aingerutxo batzuk direnik ere.

Sendagilearenetik egunero pasatzen gara eta kontsultak kontrolatzen dizkigute. Tra-

tua beti ezberdina da, izan ere guardian egokitzen den medikuarekin egoten gara. Ezberdintasuna? Batzuk arinago arduratzen dira, baina oro har, etxe hauetan lan egiten duten guztien moduan, alfer hutsak dira.

■ Presoekiko harremana aldatu da gose greban?

Harremana aldatu da, bai. Alde batetik, gose greban ez dauden kideak zamari moduan erabiltzen ditut. Arruntek ere beste era batera begiratzen zaituzte, batzuk animoak ematera etor-

tzen dira (batzuk bazkaria eskaintzera ere bai). Hemen barruan presoari, arunt zein politiko, gose greban dagoenean begirune handia zaio.

■ Zertan ematen duzu eguna?

Jan orduetan, atea noiz zabaltzen duten itxarotea beste zereginik ez daukat, ziegara igo eta etzanda gelditzeko. Gainera, nahiz eta ordu gutxitan ipini berogailua, ziegak bero mantentzen dira eta hori asko eskertzen da. Dena dela, afaldu baino

Urolako ikasleen gose greba presoan alde

Gipuzkoako Urola bailarako hainbat ikaslek gose greba hasi zuten atzo, Azpeitian, presoan eskubidean alde. Gose grebaren inguruan, hainbat ekitaldi ere egiten ari dira ikasleak; atzo adibidez, elkarretaratze bat egin zuten. Urtarrilaren 15a bitarte egongo dira gose greban.

LABeko ordezkarien itxialdia presoan alde

LAB sindikatuko hainbat ordezkari itxialdian daude, Bergaran, euskal presoan eskubidean alde. Itxialdia atzo hasi zuten eta hurrengo ostiralean amaituko.

Jon Bilbao preso bisitatzea galarazi diote Erandioko Udaleko ordezkariak bati

Presoen hurbiltzearen aldeko Erandioko Udaleko batzordeak Espainiako Espetxe Erakundearen jarrera salatu zuen atzo, Jon Bilbao herriko preso bisitatzeko egindako eskaerei ezezkoa eman baitie behin eta berriz. Batzordeak hilaren 28an presoan eskubidean aldeko elkarretaratzea egitea ere erabaki du.

Arizkuren kartzelara eramane dute berriz ere

Josetxo Arizkuren Fleury Merogiseko kartzelara eramane dute berriz ere. 56 eguneko gose greba luzearen ostean, Parisko Hotel de Dieu erietxean zegoen preso iruindarra.



S. JIMENEZ / EFE

arinago zenbaketak egin behar ditugu patioan derrigorrean, eta gose greba hasi zenetik kartzeleroen bulegoaren aurrean kartelatzen gara guztiok.